


BIHOTZ-BIRIKETAKO BIZKORTZEA (BBB)

Bihotzeko larrialdi baten aurrean, BBB bizi edo hilekoa da.



Jarri istripua izan duen langilearen albo batean.

Bizkarra eta ukondoak zuzen eduki, eta esku-orpoa toraxaren erdian jarri.




Hatzak elkarri lotu, eta ez dezatela biktimaren toraxa ukitu.

Hasi bihotz-masajea ematen: egin konpresioak, minutuko 100etik 120ra bitartean. Konpresioaren sakonera 4,5 eta 5,5 cm bitartekoa izango da.



Konpresio batetik bestera toraxa zabaldu behar da, baina konpresio batetik bestera ez ditugu eskuak bularretik kenduko.

Hogeita hamar (30) konpresioko, bi aire-emate egingo dira, biktimaren bularra altxatzeko behar beste aire sartuta.



BBBrekin jarraituko dugu biktimak bat-batean arnasketa berreskuratu, edo osasun-laguntza espezializatua iritsi arte.